

Elkartasunak batuko ditu lezoarrak

Bihar hasiko dira bi asteburu hartuko dituzten Santakrutz Jaiak. Palestinari begira jarriko dira txupinazoaren aurretik herritarrak, festetan ere aldarriak kabitzen direlako. 23-26

OSTIRALA, 2025eko IRAILAREN 12a

Santakrutzak

2025

LEZO

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Gora Santakrutzak!

Lezoarren ahotsa mundura zabalduko da festetan

Egun seinalatuak datozenak Lezon. Bihar (larunbata) hasiko dira ofizialki Santakrutz Festak 19:00etako txupinazoarekin. Festa giroko hurrengo hitzordu jendetsua herriko elkarteetan danborrada (22:45) izango da, etziko (igandea) i-14 egun handiaren atariko. Festak hasi aurretik, ordea, jaietan ere elkartasunak eta bidegabekerien salaketak tokia dutela azalduko dute: biharko 18:00etan *Lezo Palestinarekin, genozioa stop!* izenburupeko mobilizazioa hasiko da Gurutze Santuaren plazatik. Jendetsua izatea espero da, herriko 50 eragiletik gora ados azaldu direlako deialdiarekin, haiek denek sinatu dute mobilizazioa deitzeko testua; alta, jai guztietan gaia presente izan dadila ere nahi dute deitzaileek. Sinatzaileen zerrenda ondoko orrialdean dago; santakrutzaren gaineko eduki gehiago (egitaraua barne) oarsaaldea.hitza.eus webgunean. Hilaren 21era arte iraungo dute 2025eko santakrutzak.

Palestinako genozidioaren kontrako ahotsa mundura zabalduko du Lezok.

Bihar (larunbata) hasiko dira santakrutzak, 19:00etako txupinazoarekin. Aurretik, ordea, lezoarren elkartasun erakustaldia izango da, Palestinaren aldeko mobilizazioarekin.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Hurbilean eta urrunean izaten ari diren elkartasun eta salaketa adierazpideetatik beste bat izango da herrikoa. Tanta bat gehiago. «Horrelako mobilizazio bat antolatzeke asmoarekin denbora bat bageraman. Palestinan gaur egun gertatzen ari denaren aurrean, nola ospatu behar ditugu jaiak besterik gabe? Egia da bizitza aurrera doala. Ezin dugu gelditu. Dantza egingo dugu festetan, parranda... Baina hain da larria Palestinan gertatzen ari dena!». Hitzok Iñigo Esnaolarenak dira, Lezoko Sortuko kidea.

Hura izan zen festei begirako mobilizazioaren lehen hariak mugitzen hasi zena: «Erakunde eta eragile askok esan edo hitz egin bai, baina zer gutxi egiten dute. Praktikan herritarrok zerbait esan behar genuela uste dut. Horri tiraka hasi zen dena. Herritarrok ezin dugu geldirik eta isilik egon».

Mobilizazioa jai batzordetik bideratu nahi izan zuen Esnaolak. Baina batzordeak ez du bilkurarik egin aspalditik, jada zeharo itxiak zituelako santakrutzaren gainekoak uztaileko. «Hortaz, egoera gehiegi behartu gabe herriko eragile batzuk elkartu ginen hau abiatzeko, bilera irekian. Idatzi bat adostu genuen, eta festetan zer eta noiz egin hitzartu genuen, herriko beste eragileei atxikimendua eskatzeko. Bi-hiru aste dira horretatik. Eragileen zerrenda egin, eta lanak banatu genituen. Hamar egunean ia eragile denek baieztokorekin erantzun digute».

Herri lana, eta erantzuna

Herri oso bat, elkartasunez betea. Agian, Lezoko eragileen partetik inoizko atxikimendurik handiena izan duen mobilizazioa izango da biharkoa. Geopolitikaz, munduko oreka politikotaz, erlijio eta sinismen gaitetaz, edo ulergaitzak diren interes ekonomiko globaletaz ez da ulertu beharrik Palestinan Israel pertsonen *garbiketa* bat egiten ari dela ikusteko. Genozidioa. Azalpen gutxi behar izan dituzte lezoarrek festetan ere hori salatu behar dela erabakitzeke. Biharko mezua Palestinako herriaren aldekoa izango da, baita Israelgo Estatua egiten ari den



amets sukaldeak

sukalde eta bainugela estudioa

dica. banatzailea
www.dica.es

Zubitxo 15, behea. 20100 Lezo
t. 943 341678
ametssukaldeak@gmail.com
www.ametssukaldeak.com

 

MARCOS

okindegia

Benetako antzinako ogia

ongi pasa santakrutzak!

Tel.: 943 52 95 98
Urdaburu Kalea, 3 behea. LEZO

Mobilizazioarekin bat egin duten eragileen zerrenda

Aiton Borda, Allerru, Allerruko danborrada, Altamirako AE, Amezti Dantza Taldea, Arkirun, Betizutik, Errota guraso elkarte, Etxetxo, Lezoko EH Bildu, Lezoko EAJ, Gaintxu, Gainxurizketako AE, Gaxuxa, Hezikuntza guraso elkarte, Ikama, Iratzerri, Iruntzen, Ixkulin, Jaixki AF, Jaizkibel-Allerru Ehiza eta Arrantza Elkartea, Lezo-Jaizkibel mendi lasterketa, Lezoarrak Korrikalari Taldea, Lezdi, Lezoko baserritarrak, Desfile Taldea, Lezoko Caritas, Dantzazaleak, Eztandak, Trapujale Taldea, Zinema Ttikia, Lezokoak elkarte, Lezo Institutuko langileak, Mañontzi Bertso Eskola, Munttar Txistulari Taldea, Munttarpe, Murixka, OMK, Oroitzene AEK, Orratx!, Ernai, Piztu Lezo, Lezoko Sare, Sats Herri Kirol Taldea, Lezoko Sortu, Tiñelu, Txerrimuño, Txirbilla, Xoxolur, Zabarre Taldea, Zubitxo Dantza Elkartea.

sarraskiaren kontrakoa ere; baina baita munduko erakunde handiei eragiteko eskatzekoa ere, haiek baitute ziurrenik Israeli presioa egiteko baliabide edo in-dar gehien.

Biharkoaren lanketaren harira, beste gogoeta bat egin du Esnaolak. «Badago herria. Badago elkartasuna, lana, eta inplikatzeko nahi bat. Palestinaren alde oraingoan. Baina hemen badugu zerbait. Gazte asko inplikatu dira, adibidez, honen guztiaren herri lanketan. Aurrera begira ere oso kontuan hartze-koa da hori». ■



Joan den ostiralean Gernika-Palestinak deitutako burrunbaren irudia. HITZA



Santakrutzen egitarau osoa, hemen:
oarsoaldea.hitza.eus/agenda

Taloka

**KAFEA OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Polentzarrene Kalea, 3 | 20100 Lezo | T. 943 520 420 | www.taloka.net



**FINKEN
KUDEAKETA
INTEGRALA**

ABOKATUAK

*Juan Luis Urkizu
Urretabizkaia*
*Jose Ramon Perez
Bendaña*

Gora Santakrutzak!

Aralar kalea 2, beheka . 20100 LEZO . 943 34 40 21

Gozatu Santakrutzak!

KBL

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79
electricidadoarso@gmail.com
kblelektrizitatea.eus



Pilota lehia bat baino askoz gehiago

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Santakrutzetako ezinbesteko jarduera bihurtu da Josetxo Etxandi Esku Pilota Oroitaldia. Aurten 49. ekitaldia du lehiak. Pilota txapelketa bat baino askoz gehiago da, ordea, Etxandiren oroimenezkoa: abuztutik, herriko kale giroa berpizten duen jarduera da. Aurten Imanol Ayarza Orbiso *Patatas* gogoan izan dute bereziki antolatzaileek.

Federatuena eta herri txapelketa



Josetxo Etxandiren iazko herri mailako finaletan ikuslezbete egin zen Goiko plazako pilotalekua. HITZA

ditu bere barruan Josetxo Etxandik. Lehenean etorkizunean izar izango direnak ari dira; bigarrenen, lezoarrenen, herriko izarrak daude. Federatuen finalak hilaren 14an (igandean)

jokatuko dituzte Koldobike Gezala pilotalekuan (17:30); lezoarrenak, hilaren 21ean (17:00), nola bestela, Josetxo Etxandi frontoian.

Ioritz Urbieta herri txapelketaren antolatzaileetakoa da. Jakinarazi du aurten, osotara, 41 bikote ari direla bertan lehian, 82 pilotari beraz: 29 helduen mailakoak (zazpi emakumeenak dira), lau gaztetxoak, eta beste zortzi haurrenak. «Izan dira bikote gehiago parte hartu duten urteak, baina oso po-

zik gaude aurten ere izan duen harrearekin. Badago afizioa».

Lezoarren bilgune dira Etxandiko partidak. «Abuztuan giro polita sortzen da frontoian. Batez beste, 70-80 bat pertsona agertzen dira partidetara. Finaletan 500 ikusle inguru izaten dira. Lana da, baina ederra». Urbietak aitortu du, pilotaren aitzakiapean, *pik* jatorrak sortzen direla herrian. ■

**EROSKI** Lezo

Ondo pasa Santakrutzak!

Donibane Kalea, 7. 20100 Lezo
Tel.: 943 06 49 66

LIMPIEZAS
**GARBIKETAREN PROFESIONALAK**
Tel. 943 260 860

GORA SANTAKRUTZAK!


info@limpiezastxindoki.com
<https://www.limpiezastxindoki.com/>
Txatzamendi kalea 43, 110 poligenoa. Lezo

IRAILAK 13 - 21

SANTAKRUTZAK

LEZO 2025

Elkar zainduz
Lezo

